

# 31

## JESUS ETA MATEO

1

Bazan herrian gizon haundiki  
ta Mateo eritxona,  
giro haretan pekataritzat  
ezagutzen zan gizona.  
“Zatoz, Niri jarraitu,  
Jainkoak maite zaitu”  
Jesusek esan eutsona.  
Dana itzita, jarraitu eutsan;  
hortik bere zoriona.

3

“Jainko Semea dala esanda,  
hau da hau ikuskizuna!  
Gu baztartuta, horrekin dabil  
hau jazoera lizuna!  
Pekatarien mahaian  
festa-giro alaian...  
Horrek galdu dau zentzuna!  
Mesias zelan izan daiteke  
pekatarien laguna?”.

5

Gogoan ondo hartzekoa da  
Jesus Maixuak dinona:  
“Santuak ez dau bere beharrik,  
ustez bera da on-ona.”  
Santuen egoera:  
gaixorik egon bera  
eta zintzotzat dagona.  
Gaixo-gaiztotzat dagozanentzat  
da Jesusen Barriona.

2

Eta Mateok bere etxean  
prestau eban afaria,  
Jesus erdian zala, batu zan  
mahaian jende ugaria.  
Zergalari ta mozkor,  
lapur eta egoskor,  
bazan han pekataria!  
Tripak erretzen, zelan galduko  
fariseu zelataria.

4

“Osasuntsuak ez dabe izaten  
osagileen beharrik  
osagilea bai behar dabe  
gaixo, herren ta elbarrik”.  
“Opari danak baino  
errukia nahiago”  
bada esaera zaharrik.  
Ez naz etorri zintzoei deika  
pekatariei bakarrik”..

6

Guztiok gara, bai, pekatari  
hori da gauza jakina,  
baina banaka batek bakarrik  
dau hain kontzientzi fina.  
Pekataria gara  
hartu daigun hatara,  
guretzat da medizina;  
orduan Jesus gutzat litzake,  
geu gareanak bagina.